

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Ibarguren Amondarain

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretako Santa Klara kalean jaio zen Maritxu. Zortzi anai-arrebatan hirugarrena zen. Aita Errenteriakoa zuen, Lartzabal auzoan jaioa. Esmalterian egiten zuen lan aitak: sukaldeko ontzi eta kazuelak egiten ziren lantegi hartan eta aita galdatzailea zen, lantegiko labeetan aritzen zen. Ama, berriz, Bedaiokoa (Tolosa) zen. Maritxu mojekin ibili zen eskolan, "Gurutzeko Alabekin", hamabi urtera arte. Erdaraz ikasten zuten, baita dotrina ere. Eskola utzita haurtzain hasi zen lanean, baina haurra zaindu ez ezik, etxeko garbiketak eta erosketak ere egiten zituen. Hamalau urterekin Ramon Etxeberriaren tinategian hasi zen lanean, plantxatzen. Josten ikastera ere joaten zen: berak egiten zituen etxeko arropen konponketak eta baita etxekoentzako jantziak ere. Hogeita sei urterekin ezagutu zuen senarra, Errenteria-Oreretako Alamedan igandetako dantzaldian. Andaluziarra zen, Huelvako El Granado herritik lanera etorria. Handik gutxira ezkondu eta Santa Klara kalean jarri ziren bizitzen. Ezkontzerakoan lana utzi behar izan zuen Maritxuk, garaiko legearen arabera emakume ezkonduak lana uztera behartuta baitzeuden. Hiru seme izan zituzten. Maritxu beti bizi izan da Santa Klara kalean.

Zintak

ERR-028

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-05-04

- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Ama etxean lanean

- **Erref:** ERR-028/002
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Maritxuren amak etxean izaten zuen nahiko lan eta Maritxuk, alabetan zaharrena izaki, lagundu behar izaten zion. Ongi gogoan ditu arropa garbitzeko auzoko harraskara egindako bidaia. Amak ezin zuenetan joaten zen Maritxu.

2. Hamabi urte betetzerako haurtzain

- **Erref:** ERR-028/003
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Maritxu haurtzain hasi zen lanean, hamabi urte bete zituenerako. Hala ere, kontatzen du, lana eskaini zionak laster jarri zuela eskailerak garbitzen eta enkarguak egiten. Hamalau urte bete artean ibili omen zen horrela, eta gero, Timoteo Etxeberriaren tindategian hasi omen zen, plantxatzen.

3. Umetako auzoko ibilerak

- **Erref:** ERR-028/004
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Erreteria oso aldatua ikusten du Maritxuk. Gogoan ditu inguruko zelai eta baratzeak, izan ere, aitari erretzeko papera lapurtu eta arto-bixarrak erretzera haietan ezkututzen baitziren. Kaleko haurren arteko futbol norgehiagokak ere gogoan ditu, neska-mutilak, denak elkarrekin aritzen zirenekoak.</p>

4. Kaniketan txarra

- **Erref:** ERR-028/005
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Futbolearen aritzeaz gain, beste hainbat jolasetan jostatzen ziren Maritxu eta bere auzoko haurrak: soka-saltoan, "taba"tan, kromotan, kaniketan... Maritxu bereziki txarra omen zen kaniketan jostatzen, eta jokatzeko hasiz gero, guztiak galtzen omen zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta izango zenituzten jolas gehiago ere, ezta?
- Bai, bai.
- Ze jolas gehiago?
- Jesus! Ni oin ez naiz /enaz/ gogoratzen hola, bñon jartzen zian hola, zalduya balitz bezela: "A la una anda la mula, a las dos tiro la coz pa quien quiera" ta bata bestia gñian ta hola. Bai, bai.
- Eta sokasaltuan eta...?
- Ere bai. Ere bai. Eta kaniketa eta, ze, "a tabas", zeak'e bai, arkumian... belauneko puxka hoiekin, ta bai. Eta zeak'e bai, kanikakin. Jo, nik itten nittun kanikak beti galdu.
- A bai, e?
- Eta gure anaia kanika pilla batekin bortsilluan. Ta esaten zian "Zuk ez hartu!".
- Zuk berari eskatu behar!
- Klaro hoi itten nixkala! Kendu itten nixkan! Ta jeisten nitzan ta, jo, hain txarra nitzan, danak galtzen nittun, kanika guziyak.
- Kromuak-eta eukitzen zenituzten?
- Ere bai. Pilla bat, bai.
- Eta kromotaa neskak jolastuko ziñaten, ezta?
- Bai, hoixe!
- Mutillak'e bai, o...?
- Danetik ibiltzen gñan, bñon gehio neskak. Bai, neskak gehio kromotaa.

5. Mendirako joera handia

- **Erref:** ERR-028/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:18:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Igandeko meza goizean goiz entzun ostean, autobusa hartu eta Oiartzunera joaten omen ziren mendi buelta egin asmoz, hemezortzi edo hogeitun inguru zituztela. Oiartzundik abiatu eta Aiako Harritik egiten zuten buelta eta etxera itzultzen ziren iluntzerako.</p>

Transkripzioa

- Eta gero ba al zenuten ohitura hola mendi aldera juteko?
- A! Bai, bai, beti mendiyan. Goizeko seitan meza entzun, autobusa hartu eta joaten giñan zeara —oan gogoratu zait gauz bat—, joaten giñan Oiartzunaiño. Eta gero Oiartzundik Aiako Harritikan barrena jeisten giñan hor... soldadu pillá egoten zan Arkalen, eta handik barrena etortzen giñan etxea. Goizian atera ta eramaten genittun bi o hiru bokadillo, eta gero iñulabarreako etxea. Oan, zazpitako etxea, e! Eske bestela...
- Eta zuk zenbat urte zenitun orduan zuk, Aiako Harritaa juten ziñanian?
- Pues, hemezortzi-hogei o... Bai, ni gaiñea oso berandu ezkondu nitzan ta. Bai, gure Kontxi ta danak hor joaten giñan. Eta Lezoko mutil batzukin ibiltzen zian, haiek gu baiño gehio, baiñon danak juntatzen giñan, ta danak. Bai.
- Eta esan dezu zerbaitte gogoratuta zaizula oain.
- Bai. Ez, gogoratu naz, porke joan giñan eta Lezoko mutil batzuk. Eta, ez dakit, haiek norbaittekin-o geldittuak eta nunbait jon ez o, eta gero gukin ibili zian, ta Jesus! [ze] alpargata! Eta danak ibili giñan, eta geo etorri giñan. Bai. Baiñan kale in ziyoten, bai.

6. Algarrobo-lekak jaten

- **Erref:** ERR-028/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:18:37. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Santa Klara kaleko dendak gogoratzen ditu Maritxuk, eta baita horietako batera ekartzen zuten Arabako patata ere. Harrez gero ez omen du halakorik probatu. Gose urteak ziren, eta algarrobo-lekak ekarri eta zakuren bat hausten zenean, haiek lurretik hartu eta ahora eramaten ibiltzen zirela kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Hemen, kale hontan, dendak-eta izango zian, ez?
- Bai, bai, bazian.
- Gogoratzen zea zu neska koskorra ziñala ze denda zian hemen?
- Pues, hemen zan, hor... oan itxi... zea dao... zeak hartu dute...
- Restaurantia dao oain, ezta?
- Ez, hor zan, hor zan, restaurantia daon toki hortan /tokiyortan/ zan `Pionekuak´. Hor zekaten oilluantzako ta patata. Aiii! Ekartzen zuten patata bat zeatikan, Alavatik, arront patata ona! Nik geroztikan ez dut jan hain patata ona hoiek ekartzen zutena bezelakua. Bai. Eta horrea joaten giñan patata billa ta. Bai. Kamioiak´e etortzen zian. Ganaduantzako-ta ekartzen zittuzten gauzak, eta algarroba, zakun bat lehertuta eroitzen bazian, algarroba jaten aitzen giñan. Eta nik oain dala gutxi ikusi dut eta, jo, ze gauz txarra den!
- Baiña orduan izan zian gerra ondoren gosete...?
- Klaro, gosia. Jo, ya lo creo! Ya lo creo! Joee!

7. "Etxe honetan euskaraz neri!"

- **Erref:** ERR-028/008
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Gurutzearen Alabak eskolan ibili zen Maritxu, mojekin. Hamabi urte betetzerako utzi zuen eskola. Mojek gazteleraz egiten zieten eta euskaraz egiten utzi ez, baina amak argi eta garbi emana zien abisu, etxean sartu orduko euskaraz egin behar zutela denek.</p>

Transkripzioa

- Zu eskolan nun ibili ziñan?
- Hemen, mojetan, "Las hijas de la Cruz". Bai, hemen.
- Eta zenbat urte arte aittu ziñan hor ikasten?
- Pues, hamaika. Hamabi ya... hamabi urtetan ya jon nitzan etxe hortaa / etxiortaa/, asike...
- Eta ze oroitzapen dakazu mojekin ibili ziñan zea haietaz, urte haietaz? Hor ikasten ibili ziñan garai hartaz. Nola erakusten zuten o ze moduzkoak ziran mojak maistra bezela?
- Bueno, ba, mojak. Lo ke pasa es ke gu joaten giñanian gure amak esaten zigun: "Ate hortatik sartzen zeaztenian, hemen nei euskeraz, e! Gero hortik ateratzen zeaztenian nahi dezutena in /nahizutenin/". Porke eskolan ez ziguten uzten euskeraz hitz eitten. Ez ziguten uzten. Dana erderaz.
- Eta euskeraz egin ezker?
- Pues, erritan ematen zizuten. Porke bestela ez genula ikasiko eta... Ni gogoratzen naiz Eskarne Mendizabalena. Klaro, haiek'e dana euskeraz etxian eta cuenta, eta cuenta itteko guk askotan euskeraz itten genun kuenta. Errexo o. Gero ya ikasi genun erdera ta gero alrebes. Euskeraz ezin iñik oain ibiltzen gea, "hitz hau nola jarri behar dut?" eta.
- Oseake, orduan mojak erderaz.
- Erderaz, dana erderaz. Dana. Ez ziguten uzten...
- Eta dotriña?
- Dotriña're dana euskeraz.
- Dotriña euskeraz?
- Oi... dotriña erderaz! Dana erderaz! Bai. Don Jose Luis Lekuona-ta izaten zian erakusten zigutenak. Bai. Dana, dana erderaz. Gogoratzen naz ondo atera genula urte batian, ta eraman ziguten eskurtsiyo bat. Jon giñan topuan zearaiño, Gaintxurixketaiño. Ta Gaintxurixketatik Lezotik malda hortan barrena zeara... Jesus! Esango dut!
- Guadalupera?
- Guadalupea. Eta gero Guadalupetikan jeitsi ziguten Hondarrabiko hondartzaa. Eta hondartzan bazkaldu genun. Eta, jo, ez traje de bañoik jartzeko eta ez ezerre, hankak han urian sartzen, dana... gona dana busti! Eta gero eraman ziguten Iruna. Eta Irunen erakutsi ziguten eliza, Irungo eliza. Eta nola eukitzen zittuzten apaizak zean sartuta. E? Ni ttiki xamarra nitzan, baiñan...
- Eta ze in zenuten eskursiyo guziya oiñez?
- Bai, bai, oiñez, oiñez.
- Ba, bada, ez?
- Bai, bai, bai, bai. Orduan asko ibiltzen zan! Ez zan oan bezela. Oan kotxia hartuta.

8. Egun osoa josten!

- **Erref:** ERR-028/009
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Brodutzen asko aritzen omen ziren eskolan, baita galtzerdiak pasaratzen ere. Etxeak josteko, brodatzeko zein konpontzeko izaten ziren arropak ekarrarazten zizkieten mojek eskolara.</p>

Transkripzioa

- Ordun, zuk hor ikasiko zenun irakurtzen ta idazten.
- Bai, dana.
- Ta kontuak ateratzen.
- Bai. Bai, bai, bai, ikasi genun guziya. Bai.
- Eta eskulanak eta hola ere egiten zenituzten?
- Bai, bai, itten genittun eskulanak.
- Gogoratzen zea ze eskulan zian?
- Josus! Askok. Gehientsuna bordatzen. Bai. Eta nei, gaiñea, nola giñan anai-arreba asko, pues, egun batian esan nun: “Gaur libre, gaur ez dut josi-ta in behar”, nola beti josten-ta aitzen nitzan. Etxeko erropa guziya nik josten nun. Orduan ez baitzan oan bezela! Telak erosi ta ahal zenun bezela etxian itten zenittun. Eta jon giñan zeara... Jon nitzan eskolaa, eta mojak galdetu zien: “Ekarri al dezu /altzu/ lana?”, “¿Has traido trabajo?”, y “No, hoy no, ha dicho mi madre que no había”, ez zeola lanik. “Ez daola lanik zure etxian hoinbeste umekin? Beinga! Seittuan etxea!”. Eta arrautz bat, arrautza bezela, egurrezkuak bazian. Han sartu eta zurzitzen galtzerdiyak. Orduan zuluak itten zian eta zurzitzen ikasi nun.

9. Neskak alde batetik eta mutilak bestetik

- **Erref:** ERR-028/010
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:24:41. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

<p>Zazpi urte bete eta lehenengo jaunartzea egin bitartean, neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren eskolan. Adin horretatik gora, ordean, bereizita. Maritxuren anaiak Don Pedrorengana joaten ziren, herriko eskola publikora, eta oso gogorra omen zen. Makila asko dantzatzen omen zuen.</p>

Transkripzioa

- Gero, hor, esan dezu hamabi urte arte edo ibili ziñatela.
- Bai, bai, [...] eskolan. Gero ya ni gehio ez nitzan jon.
- Neskak eta mutillak batera al ziñaten hor eskolan?
- Ez, ez. Monjetan ttikiyak zazpi urte arte. Komuniyua in arte neskak eta mutillak. Biñon ya handik aurrea ya mutillak jotzen zian o frailetaa o herriko eskolaa don Pedrokin o bestela... Biño hor neskak bakarra geo.
- Don Pedro zan... hemen apaiza zan, ez?
- Bai, bai, apaiza.
- Eta horrek nun erakusten zun ba?
- Zean, “en las escuelas públicas”. Osea... Bai, herriko eskolan.
- Eta zer zan [gogorra]?
- Kriston gogorra! Bua! Makilla hartzen zun... [Gure] mutillak kontatzen dute; haiek, haiek kontatzen dute /kontatzeute/. Eta badakizu gonakin ze

soiñu ateratzen dan: “pla!”, “pla!”, “pla!”. Eta ez bazenun ikasten, harrekin zipli-zapla.

10. Errenteriako kalean gaztelera nagusi

- **Erref:** ERR-028/011
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Maritxu gaztea zela gaztelera hitz egiten zuten kalean, nagusiki.</p>

Transkripzioa

- Hemen, umea ziñanian ta jolasten ibiltzen ziñatenian kalia-eta, zuen artian nola hitz egiten zenuten? Euskeraz, erderaz, bitara?
- Nik uste dut /usteut/ gehientsuna erderaz itten genula. Itten genun´e bai, e? Segun zeñekin juntatzen ziñan itten zenun euskera. Biñon ez, kalia...
- Gehientsuna...
- Gehientsuna erderaz. Bai.

11. Bizilagunen marruak gogoan

- **Erref:** ERR-028/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Oso txikia zen Maritxu gerra piztu zenean. Hiru urte eskas izango zituen. Hala ere, gogoan ditu bizilagunen marruak, semea gerran hil eta gorpua non zen ez zekitela eta.</p>

Transkripzioa

- Hor zu oso gaztia ziñan, baiño 36an, gerrako urte hortan, zuk bi urte o hola izango zenitun.
- Hiru.
- Hiru urte.
- Hiru urte.
- Eta, jakiña, ez dezu gogoratuko orduko... badezu oroimenian gerra garaiko konturik?
- Ni gutxi gogoratzen naz, horrengatik esan nizun. Gerrako denbuan, jo, gogoratzen naz ni hemen aurreneko bizitzan bizitzen zan andre bat izena zuna Genoveva. Eta harrei in ziyoten anai bat, ez dakit, gerrako denbuan-o ez dakit noa eraman zittuztela ta hil in zutela ta ez zekiyela non zeon, non sartu zuten ta. Ta gogoratzen naz nola egoten zian marruez. Marruez. Hoi gogoratzen naz. Marruez.

12. Sotora, kupel artera, sirena hotsarekin bat

- **Erref:** ERR-028/013
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Maritxuren familia ez zen gerra garaian Erreteriatik atera, etxean hiru haur txiki eta anaia Batista 1936an jaio berria baitzen. Fabriketako sirena hotsak eta bonbardaketa abisuak izaten ziren garaiko korrikaldiak eta gora-beherak gogoan ditu. "Batallón de trabajadores" delakokoak On-bide zinemara biltzen ziren lotara, eta gurasoek ez zieten haurrei hara gerturatzen uzten, han izaten zen arkakuso eta zorri pilagatik.</p>

Transkripzioa

- Gerra... Gerrako... Eta gero, pues, gu ez giñan jon hemendikan. Hemen geldittu giñan, porke amak zittun hiru ttiki, ta gero, zea, mutilla jaiotzeko zeon, porke gure Batista treintaiseisian jaio zan. Eta ez giñan muittu hemendikan. Ta sirenak hasten zianian, "iiiiiii" fabrikako sirenak-eta jotzen zittuzten. Eta gero, pues, hoi, bonbak-eta botatzen zittuzten, ta "[Hara! Hara!] Goiko kalia bonba! Goiko kalia bonba!". Eta hola zerbait, biñon gutxi. Eta sirenak hasten zianian, gogoratzen naz korrika danak goitik behera jeisten giñan, eta sartzen giñan hor bihian. Beheko zean zeuden barrikak, porke itten zuten sagardua. Hor zeon... Ekartzen zittuzten sagarrak ta hor itten zuten, ta han atzetikan pasatzen zuten ta hemen saltzen zuten sagardua.

- Saldu iten zuten?

- Saldu itten zuten sagardua.

- Eta barrikak zeuden?

- Bai. Eta zeuden barrika haundiyak. Eta hara joten giñan. Ni gogoratzen naz hor barrikan ixil-ixilik eta nola egoten giñan. Eta gero, berriz, pasatzen zanian dana, berriz gora. Bai, biñon gutxi gogoratzen naz. Gero gogoratzen naz, ez dakit "del Batallón de Trabajadores" o zer ekartzen zittuzten, ta etortzen zian horrea, On-bidea, atze hortaa /atziortaa/. Zine haundi bat zeon, "cine On-bide", eta hor sartzen zittuzten. Eta lo ta danak. Eta gue ama beti erritan: "Ez jon horrea! Zorriya ta zikiña besteik ekartzen ez duzute ta!". Klaro, haiek erropa zikiñakin-ta, gaixuak!

- Eta zuen amak o aittak o ez zittun kontatzen hola gerra garaian herriyan gertatutako kontuak?

- Bai, kontatzen zittuzten. Bai. Gue anaiak gehio, biño kontatzen zittuzten. Hor bidian nola jarri zittuzten zakuak eta; etorri tropa batzuk etorri ta ezin pasa ta. Kontatzen zittuzten hola gauzak, biño ni ya... Ni oso ttikiya nitzan ta oso gutxi gogoratzen naz ni.

13. Zuaznabarreko errotako amona

- **Erref:** ERR-028/014
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra osteko gosearekin gehiago gogoratzen da Maritxu. Errenteriako Zuaznabarreko errotakoak aitaren lehengusuak zituzten, eta hango amonak beti ematen omen zien zer edo zer etxerako.

14. Aita sagar garraio Bedaio aldetik Errenteriara

- **Erref:** ERR-028/015
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:31:42. **Bukatu:** 00:35:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Carrera delako bat zen Errenteriako dolareetako baten arduraduna, eta Maritxuren aita harentzat sagarra ekartzen ibiltzen omen zen. Maritxuk gogoan ditu sagar pilaren azpian ezkutuan ekarri ohi zuten jatekoarekin zein komeria ibiltzen zituzten.

15. Arrautza bakarreko tortilla

- **Erref:** ERR-028/016
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:35:24. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Maritxuk dio gerra ostean familia osoarentzat kozinatu behar izaten zuten amek meritu izugarria zutela. Gogoan du, esaterako, amak sei-zortzi lagunentzako patata tortilla arrautza bakarrarekin egin behar izan zuenekoa.

16. Etxeko jostuna

- **Erref:** ERR-028/017
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Maritxuk josten ikasi eta zerbitzu handia eman zuen etxean. Gogoan du oraindik ere ahizpetako bati josi zion txaketa. Anaietako batek marinan bete zuen zerbitzua, eta hark petatean ekarritako arrokekin traje bat josi omen zuen beretzako.

17. Arropa epeka erosten

- **Erref:** ERR-028/018
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:42:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Zapatak eta arropa epeka ordaintzen ziren askotan.

18. Don Angel eta Don Markos

- **Erref:** ERR-028/019
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:46:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dena bekatu zen garaian egokitu zitzairen gazte izatea Maritxu eta bere adin bueltako guztiei. Behin, hiru "R"ko pelikula bat ikustera joan omen ziren (La muchacha del trapecio rojo), Maritxuren ahizpak, Edurnek, urteak betetzen zituela eta. Hura eta gero, konfesatu egin behar! Konfesatzeko, alde ederra zegoen Don Markosengana edo Don Angelengana joanda. Maritxuren ahizpa Don Angelengana joan zen, Don Markosenean ilera luzeegia zegoela eta. Ederki damutu zitzaion, absoluziorik ere ez baitzion eman!

19. Hogei urte bete arte dantzara joan ezin

- **Erref:** ERR-028/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:46:47. **Bukatu:** 00:48:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Maritxuren amak ez zien Erretereriako Alamedara dantzara joaten uzten. Hogei urteak beteta joan ziren lehen aldiz. Maritxuk pentsatzen du mutilekin ibiltzen hasteari izango ziola beldur amak. Izan ere, ezkon aurreko sexu harremanak oso gaizki ikusiak zeuden, eta zer esanik ez ama ezkongabea izatea.

20. Lagunartea hezkuntza sexualerako eskola

- **Erref:** ERR-028/021
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:48:47. **Bukatu:** 00:49:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Hezkuntza sexualik batere ez omen zuten etxean jasotzen, eta eskolan are eta gutxiago. Izatekotan, lagunartea izaten zen hezkuntza sexualari buruz zer edo zer jakiteko eremu egokiena.

21. Atzera Erreteriarra, neska bide erdian utzita

- **Erref:** ERR-028/022
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:49:31. **Bukatu:** 00:50:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erreteriarako zumardian dantzari maiz ibilitakoa da Maritxu, adin batetik aurrera bada ere. Neska-laguntzak gogoan ditu, eta arriskutsu xamarrek batzuk, gainera! Izan ere, Erreteriarako mutilak kexu izaten ziren neska oiartzuarrak lagunduz gero, mutil oiartzuarrak harrika hartzen zituztela.

22. Beltzez ezkondu nahi ez

- **Erref:** ERR-028/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Maritxuk ez zuen beltzez ezkondu nahi izan, bere lagun guztiek hala eginda edo egingo bazuten ere. Trajearekin ezkondu zen. Traje zurixka batekin.

23. Kakorratzarekin egindako azpiko arropa

- **Erref:** ERR-028/025
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:54:20. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Maritxuk bere ezkontzarako bularretakoak berak egin zituen, kakorratzarekin. Nylonezko lehendabiziko galtzerdiak saltzen hasi zirenean ezkondu zen gainera, "karrera" bat egin eta konpontzera eramaten ziren garaian.

24. Ezkontza ospakizuna, familia eta lagunekin

- **Erref:** ERR-028/026
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkontza osteko bazkaria Mendiola jatetxean egin zuten, Erreterian, familiarekin eta lagun batzuekin. Maritxuk oraindik etxean ditu ezkontza eguneko lagunak opariak: platerak, kopa txikiak...

25. Ezkon-bidaia aita-amaginarrebak ezagutu

- **Erref:** ERR-028/027
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkon-bidaia Gasteizen hasi, gero Sevilalara joan trenean, eta handik, kamioneta batean, Huelvara, El Granadara, senarraren herrira, haren gurasoak ezagutzera. Maritxuk lotsa handia pasa omen zuen El Granadara iristean, herri guztia omen zegoen-eta haiek noiz iritsiko zain, jakin minez. Sevilla aldean bero handia pasa arren, oso gustura ibili zen Maritxu bere ezkon-bidaian.

26. Lehendabiziko kotxeak

- **Erref:** ERR-028/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:03:51. **Bukatu:** 01:04:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Erreterian autoa erosten lehenengotarikoak Xenpelar plazan denda zeukaten hiru anai-arreba izan omen ziren, Maritxuk dioenez.

27. Legeak lana uztera behartu

- **Erref:** ERR-028/030
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:05:19. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Behin ezkonduz gero legeak emakumeak lan mundutik nahi eta nahi ez apartatzen bazituen ere, Maritxu aritu omen zen ezkondu eta beste urte betez, tindategian lan asko zutelako. Ondoren, hiru seme-alabetan zaharrena jaiotzear zela, utzi egin zuen lana.

28. Hiru seme-alaben jaiotzak

- **Erref:** ERR-028/031
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:06:05. **Bukatu:** 01:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Lehendabiziko bi seme-alabez Gizarte Segurantzako ospitalean erditu zen Maritxu, eta hirugarrenaz, San Inazio klinikan, oraindik etxean erditzea oso gauza arrunta zen garaian. Amak izan zuen azkenekoa, Maritxuren anaia gazteena, alegia, zazpikia izan omen zen, eta Maritxuk gogoan du amak zein pazientziarekin zaindu zuen semerik gazteena, hazten hasi zen artean, bai eta nabarmen hazi ere! Denborarekin, anaia zazpikia izango zen guztietan handiena.

29. Erreterriako Xenpelar plazako igandeetako feria

- **Erref:** ERR-028/033
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:08:19. **Bukatu:** 01:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ospea eta sona omen zuen Igandero Erreterriako Xenpelar plazan egiten zen feriak. Denetik izaten omen zen. Gaur egun oraindik ere antolatzen omen da, baina postu gutxiago daude, eta lehen ohikoak ziren kontu batzuk aldatuta daude. Maritxuk gogoan du, esaterako, amak babarrunak lekatan ekartzen zituenekoa, prezio merkeagoa ordaintzearen truke.

30. Kanpotarrak erruz

- **Erref:** ERR-028/034
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:10:58. **Bukatu:** 01:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Gerra ostean kanpotar asko heldu zen Erreterriara, eta haien etorrerarekin batera, herriko paisaia bera ere asko aldatu zen. Maritxuren esanetan, garai hartan, zuhaitz bakoitzeko etxe berri bat altxa omen zuten, eta Galtzaraborda bezalako inguruak oso itsusi geratu zirela dio.

31. Senarra kanpotarra

- **Erref:** ERR-028/035
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:14:11. **Bukatu:** 01:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Senarra kanpotarra du Maritxuk, Huelvatik etorria. Denborarekin Maritxuren senarra izango zenak ba omen zuen jaioterriko ezagun bat Ondartxo auzoan bizi zena, eta gela bat utzi edo alokatu omen zion, Erreteriarra etor zedin. Etorri eta berehalaxe hasi omen zen lanean, eraikuntzan.

32. Senarrak euskaraz ongi ikasi

- **Erref:** ERR-028/036
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 01:15:58. **Bukatu:** 01:16:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Huelvatik Erreteriarra etorri, eta Maritxuren senarrak euskaraz egiten ederki ikasi omen zuen.

33. Mezatan lau atso

- **Erref:** ERR-028/037
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:16:31. **Bukatu:** 01:20:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Maritxu saiatzen da egunero mezetara joaten. Hala ere, ikusten du, gaur egun oso jende gutxi duela joera bera: "lau atso", berak dioen moduan. Seme-alabak ez zaizkio mezetara joan zaleak atera, baina berak jarrera guztiak errespetatzen ditu.

34. Gaur egungo haurren hezkuntza

- **Erref:** ERR-028/038
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:20:04. **Bukatu:** 01:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Maritxuk gauza onak eta txarrak ikusten dizkio egungo gurasoen euren seme-alabei ematen dieten hezkuntza motari. Txarren artean dauka haurrak gauza material gehiegirekin saritzea.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com